

1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2017):	15.407
Zabalera:	2,14 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Iruña (ikus mapa)
Udalerriak:	Pamplona/Iruña (distrito-sección: 03-014, 03-019 y 03-021 a 03-027)

2. Komunitatea eta osasuna

Ermitagañako eskualde oinarritzkoa Iruñeko udalerrian dago kokatua eta bertako biztanleriaren piramideak erraboi itxura du; 35etik 70 urte bitarteko biztanleak dira nagusi. Gainera, talde ugari agertzen dira 30 urte ingurukoak; horiek beheiti doaz adina gutxitu ahalean, 0tik 4 urte bitarteko taldea kenduta. Biztanleria feminizatua dago 15 urtetik aurrera. Eskualde oinarritzko hau da 14tik 19 urte bitarteko ama duten jaioberrien tasa txikiena (%0,8), bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko gizonezkoen etheen portzentaje txikiena (%15,0) eta muturreko pobrezia arriskuaren tasa txikiena (%5,7) dituztenetarik.

Ermitagañakoa dago emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarritzkoen %25en artean, diabetesa diagnostikatu duten pertsonen dagokienez (%5,6). Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarritzkoen %25en artean dago, 6 hilabetetan amagandik edoskitzen duten haurrei dagokienez (%54,1) eta urteko kontrol erregistratua

duten hipertentsiodunen portzentajeari dagokionez (%57,7).

Nafarroa2000 zonifikazioan Ermitagañako eskualde oinarritzkoa Iruñeko eskualdean baitago, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Iruñeari dagozkion adierazleak, bizimoduei, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik aterak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %39,1ek diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela (binge drinking) eta %20,8k kontsumitzen dute tabakoa egunero.


3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hay da, Osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonen, komunitateen eta herrien duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesia).

[-> Ikus eskualdeko aktiboen mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierazle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarritzkoen multzoaren aldera. ADierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanes gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1-2: Bizt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errola; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Iruñeko eskualdeko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 3., 4. eta 13. adierazleetan, 7; 10-12. adierazleetan, 6.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleentarako egindako kontrastea). **1.** Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduiko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobreziaaren atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobreziaaren atalasea, 2015ean: 5150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batere egiten ez duten 14 – 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 egunean kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Egunero tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Egunero tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 onzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitua: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (T. gordina: emakumezkoak 18,5 eta gizonezkoak 9,2); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitua 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score ≥ +2); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitua (T. gordina: 6,1); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatuaren neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotzatzen arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.